








1.995




AURRERA, K.E.-KO BAZKIDEEK




Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

LEITZAKO UDALAK



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Herritar eta bisitari guztiei

LEITZA, 1995.URTEKO PESTAK



LEITZARROK, LEITZA GORATU DEZAGUN!

Hauteskundeak pasa ondoren geldiunea somatu bada ere «abiadura» handiz hasi da Udalari dagokion makinaria guztia. Hau irakurtzen duzuegerako gora-behera dexente gertatu izan da «etxe santu» honetan eta honek ordezkatzan dituen kaleetako bazterretan ere. Dena den garaiz gaude hainbat gauzatan erreflexio ttiki bat egiteko eta abiapuntua zein den gogoratzeko. Herriari dagokion itxuran eta azpiegituran hamaika aldaketa gertatu dela ezin da ukatu. Dena, bere osotasunean bukatu ez bada ere, duela lau urtetik hona herrira hurbildu ez denak harridura nabarmena izanen luke; saneamendu sarea, kamioa berriztatua, espalo dotoreak, ... Honek, guzti honek bere ordaina du. Gure aldeko ordaina alde batetik; bizimodu era aurki daitekeelako, nahiz eta ongi bizi ahal izateko beste behar batzuk ere bete behar. Baina guzti hau, gutxiago gustatzen zaigun ordaina, dirutan irakurri behar da diruz pagatu behar baita, eta honek lotura handiak dakartza. Ez naiz luzez arituko zenbakitan baina ideia bat egin dezagun, 2.000garren urtea pasatu arte batz besterik ez prestamoa eta korrituak pagatzeko 70 milioi -gutxi gora-behera- sartu behar ditugu urtero bankutan deuseren truk hemendik aurrera. Inor beldurtzeko asmorik ez badugu ere, honek udal ekonomiaren «hestutze» plangintza eskatzen duela jakinarazi nahi dizuegu. Beldurtu ez baina, kontutan har dezagun gure nahi guztiak mugatuak aurkitzen direla. Hala ere, hemendik egiten saiatzen garen guztia ez dela diruz bakarrik egiten jakin badakigu. Mila gauza dira bultzatu litezkeenak eta traba guzti horien gainetik, horretarako prest gaude orain Udala osatzen dugun hamaika gizon-emakumeok. Zuekin batera beharko du izan, momentu onetan eta txarretan ere, ezkontzetan esaten den lez, nahiz eta gure asmoa udalarekin «ezkontzea» ez izan, bai partaidetza handiagotzea eta hobetzea. Herria denon artean osatzen dugunez, denon artean eraiki dezagun. Festetan gaudenez, hemendik gure zorionik hoberenak opa dizkizuegu, umore onenaz goza ditzazuela, bakoitza eta bakoitzarena errespetatuz, bakoitzenaz guztiona egiten baitugu. Nafarroan dagoen Euskalerriko herri honek erakutsi ohi duen bezala, giro garbia eta sana erakuts dezala, baita festetan ere. Jai, festa eta giro osasuntsuak herritar eta hurbiltzen zaretenontzat.


MIKEL ILARREGI




ABUZTUAK 6, IGANDEA

UMEEN EGUNA

- **Goizeko 8etan:** Diana txistulariekin.
- **9etan:** Zaldi ttikiak plazan.
- **10,30etan:** Meza nagusia. Elizan, noski.
- **11,30etan:** Umeen arteko pilota partiduak.
- **12,30etan:** Umeentzako jokoak:
 - Soskor apustua.
 - Zaku saltoa.
 - Aulki arrapaketa...
- **Arratsaldeko 4etan:** Txirrindulariak (Indurainek esan digu aurten ezin izanen dela etorri, akaso heldu den urtean...).
- **5,30etan:** Berriz ere zaldi ttikiak plazan.
- **6,30etan:** Aurrerako dantzari ttikien saio dotore bat ikusteko aukera izanen dugu.
- **7,30etan:** Herriko trikitilari eta akordiolarien emanaldi bikaina.
- **8,30etan:** Dantzaldia plazan BASAJAUN taldearekin.
- **11,30etatik aurrera:** Berriz ere BASAJAUN taldea.



ABUZTUAK 10, OSTEGUNA



PESTA BEZPERA

- **Eguerdiko 1,30etan:** Jubilatuen bazkaria.
- **Arratsaldeko 6,30etan:** Pestei hasiera emanez, ezkilak jotzea eta etxafuegoa botatzea.


Ondoren, Plazaola aldizkariaren azalaren lehiaketan irabazle izan denari, Mikel jauna alkateak saria emanen dio.

«Segituan buruhaundi, txistulari, akordeoilari eta Incansables txarangarekin kalejira herriko kaleetan barrena».

- **7,30etan:** Dantzaldia plazan JOSELU ANAIK taldearekin.
- **Gaueko 12etan:** JOSELU ANAIK taldearen beste emanaldia.



ABUZTUAK 11, OSTIRALA



TIBURTZIO DONEAREN EGUNA


- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
 - Txistulariak: betiko buelta.
 - Trikitilariak: alde zaharrea hasiko dira, Manuel Lasarte auzoan barrena, Huarte Gotzaia kalera eta handik Jose Deunaren Plazara ailegatzeko.
- **9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
- **10etan:** Kadete mailako txirrindulari laisterketa.
- **10,30etan:** Meza nagusia (apeza ta guzi).
- **Eguerdiko 12etan:** Aurrera K.E.ko ezpatadantzariak, ba... ezpatadantza dantzatuko dute, noski.
- **12,30etan:** Aurrera K.E.ko pilota eskolak antolaturiko pilota partidua plazan.
- **Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak.
- **6,30etan:** Erraldoiak gaiteroekin batera herrian barrena ibiliko dira, umeen eta beren gurasoen gozamenerako.
- **7etan:** Pilota partidu profesionalak Amazabal Pilota lekuan.
- **Arratsaldeko 8etan eta gaueko 12etan:** JOSELU ANAIK plazan.

ABUZTUAK 12, LARUNBATA




PESTA BIGARRENA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana.
 - Txistulariak: betiko buelta.
 - Gaiteroak: Patxi Arrazola eta Amazabal kaleak alaituko dituzte.
- **9,30etan:** Entzierroa eta zezenak.
- **11,30etan:** Erraldoiak herriko kaletan zehar.
- **12etan:** 3.mailako Futbol partiduak, HERNANI eta LAGUNAK taldeen artean Larbando Futbol zelaian.
- **12,30etan:** Pilota Partiduak Pilotarikin.
- **Arratsaldeko 5,30etan:** Adardunak (lau anketakoak) plazan.
- **6,30etan:** Aurrerako dantzariak saio bikaina, beti bezala, eskainiko digute herriko plazan. Ondoren bonba japoniarrak.
- **8etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.
- **Gaueko 12etatik aurrera:** GAUBELA taldea berriz ere.




ABUZTUAK 13, IGANDEA



PESTA HIRUGARRENA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
 - Txistulariak: Betiko buelta.
 - Akordeoilariak: Alde zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia kalea eta Jose Deurenaren Plazan ibiliko dira.
 - **9,30etan:** Entzierroa eta zezenak.
- Ordu berean hasita eta egun guztian «TIRO AL PLATO» Baztarlan.
- **12etan:** Herri kirolak:
 - Sokatira: Areso, Larraun eta Sakana.
 - Harrijasotzaileak: Migeltxo Saralegi eta Iñaki Perurena.
 - **5,30etan:** Zezenak.
 - **6,30etan:** Kale animazioa ORTZISAURIO-en eskutik.
 - **6,30etan:** Aizkora Apustua.
 - **8etan:** Dantzaldia AKELARRE talde sorginduekin.
 - **12etan:** AKELARRE taldea.




ABUZTUAK 14, ASTELEHENA



PESTA LAUGARRENA



- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
 - Txistulariak: betiko buelta.
 - Trikilariak: Patxi Arrazola eta Amazabal kaleak alaituko dituzte.
- **9,30etan:** Entzierroa eta zezenak.
- **12,30etan:** «INCANSABLES» txarangak, 25. urteurrena ospatzen dutela eta, kontzertu bikaina eskeiniko digute.
- **Arratsaldeko 5etan:** Zezenak.
- **6,30etan:** Bertsolariak.
- **8etan:** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.
- **12etan:** Berriz ere LAIOTZ.



ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

AMABIRJINAREN EGUNA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
 - Txistulariak: Betiko buelta.
 - Akordeoilariak: Alde zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia kalea eta Jose Deunaren Plazan ubiliko dira.
- **9,30etan:** Entzierroa eta zezenak.
- **12etan:** Pilota Partiduak eta Herri Kirolak.
- **Ordu 2,30etan:** Aurrerako bazkideentzako bazkaria, betiko tokian. Incansableak bertan arituko direlarik.
- **Arratsaldeko 6etan:** Ezkonduen entzierroa eta zezenak.
- **7etan:** Ezkonduen ingurutxoak.
- **8etan eta gaueko 12etan:** ARITZA taldea.
- Ingurutxoak ondoren «POBRE DE MI» edo «GIZAJOA NI».



*Gaur egun
edozein bikote
klase elkartzen
denez hona
hemen bikote
ederra ¡Urte
askoz!*

PROGRAMA DE FIESTAS PATRONALES 1995

**30 DE JULIO - DOMINGO
REPARTO DE PROGRAMAS**

9 de la mañana: Los jóvenes del pueblo acompañados por trikitilaris, akordeolaris y txistularis andarán de casa en casa repartiendo el programa de fiestas.

Recordar que el dinero se deberá entregar sólo a aquellos que vayan provistos de caja precintada.

5,30 de la tarde: Concierto en la plaza a cargo de los alumnos de la escuela de acordeones de Leitza.

7,30 de la tarde y 11 de la noche: Bailables a cargo del grupo URRATS.

**6 DE AGOSTO - DOMINGO
DIA DEL NIÑO**

8 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis.

9 de la mañana: Ponneys en la plaza.

10,30 de la mañana: Misa mayor.

11,30 de la mañana: Partidos de pelota infantiles.

12,30 del mediodía: Juegos para niñas y niños.

4 de la tarde: Carrera ciclista.

5,30 de la tarde: Ponneys otra vez.

6,30 de la tarde: Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera.

7,30 de la tarde: Concierto ofrecido por el grupo de trikitilaris y akordeolaris del pueblo.

8,30 de la tarde: Bailables con el grupo BASAJAUN.

11,30 de la noche: Grupo BASAJAUN.

**10 DE AGOSTO - JUEVES
VISPERA DE FIESTAS**

1,30 del mediodía: Comida de Jubilados/as.

6,30 de la tarde: Inicio de las Fiestas con repique de campanas y disparo del cohete anunciador, a continuación kalejira con los cabezudos, txistularis, akordeolaris y la txaranga Incansables.

7,30 y 12 de la noche: Bailables con el grupo JOSELU ANAIAK.

**11 DE AGOSTO - VIERNES
DIA DE SAN TIBURCIO**

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y trikitilaris del pueblo. Los primeros realizarán el recorrido habitual de todos los años. Los segundos recorrerán: Parte Vieja, Manuel Lasarte, Obispo Huarte y Plaza San José.

9,30 de la mañana: encierro y vaquillas.

10 de la mañana: Carrera ciclista categoría cadetes.

10,30 de la mañana: Misa mayor. La Corporación irá acompañada de los Ezpatadantzaris del C.D. Aurrera.

12 del mediodía: Actuación de los Ezpatadantzaris. Después partidos de pelota.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Los gigantes y gaiteros recorrerán las calles del pueblo.

7 de la tarde: Partidos de pelota profesionales en el frontón Amazabal.

8 y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo JOSELU ANAIAK.

12 DE AGOSTO - SABADO

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y gaiteros del pueblo. Los gaiteros alegrarán esta vez con su incomparable música los barrios de Patxi Arrazola y Amazabal.

9,30 de la mañana: Encierro y vaquillas.

11,30 de la mañana: Los gigantes volverán a recorrer las calles del pueblo.

12 del mediodía: Partido de Fútbol de 3.ª División HERNANI-LAGUNAK.

12,30: Partido Pelota.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Actuación de los dantzaris del Aurrera y a continuación bombas japonesas.

8 y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo GAUBELA.

13 DE AGOSTO - DOMINGO

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y gaiteros del pueblo. Los gaiteros recorrerán: Parte

Vieja, Manuel Lasarte, Obispo Huarte y Plaza San José.

9,30 de la mañana: Encierro y vaquillas. A la misma hora y durante todo el día «TIRO AL PLATO» en Baztarla.

12 del mediodía: Deporte rural:

- Sokatira: Areso, Larraun y Sakana.

- Harrijasotzailles: Migeltxo Sara-legi e Iñaki Perurena.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Apuesta Hachas.

6,30 de la tarde: Animación callejera a cargo del grupo ORTZISAU-RIOK.

8 y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo AKELARRE.

14 DE AGOSTO - LUNES

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y trikitilaris del pueblo. Los trikitilaris alegrarán esta vez con su incomparable música los barrios de Patxi Arrazola y Amazabal.

9,30 de la mañana: Encierro y vaquillas.

12,30 de la mañana: La txaranga «LOS INCANSABLES», ofrecerán en su 25 aniversario un concierto en la plaza.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Bertsolariak.

8 y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo LAIOTZ.

15 DE AGOSTO - MARTES

7,30 de la mañana: Dianas a cargo de los txistularis y gaiteros del pueblo. Los gaiteros recorrerán: Parte Vieja, Manuel Lasarte, Obispo Huarte y Plaza San José.

9,30 de la mañana: Encierro y vaquillas.

12 del mediodía: Partido Pelota y Herri Kirolak.

2,30 de la tarde: Comida de los socios del Aurrera en la que actuarán Los Incansables.

6 de la tarde: Encierro de los casados y embolados.

7 de la tarde: Ingurutxo de los casados.

8 y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo ARITZA.

O H A R R A K

1. INCANSABLES txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gauen herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buru haundiak arratsaldero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udalak ez du zezenetan gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik.
4. Egitaraua borondatearen truke banatuko da. Udaletxean eta tabernetan ere salgai egonen da.
5. Aurten «ASEGARCE»k antolatutako partidu profesionalen berri esku programen bidez izanen dugu, bertan lekua, ordua e.a. zehaztuko direlarik.
6. Zezenetan dabilzenei eskapa bidea errezagoa egiteko barreren gainean inor ez esertzea eskatuko genuke.
7. Aurrerako bazkideen bazkarira joan nahi duenak txartelak abuztuaren 13a baino lehen salgai izanen ditu Txokon eta Adurren.
8. Goizeko hiruak aldera egunero, ligatzeko ingurutxoia izanen dugu.

A V I S O S

1. La charanga LOS INCANSABLES animará el pueblo todos los días de mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días a la tarde junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hará cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se repartirá a cambio de la voluntad. Además se podrá obtener en el Ayuntamiento y los bares.
5. Asimismo, se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales organizados este año por «ASEGARCE», mediante los correspondientes programas de mano.
6. Sería de agradecer que el público asistente a los espectáculos taurinos se abstuviese de sentarse encima de las barreras, para así facilitar la huida de los que en apuros se vieren por las embestidas de los astados.
7. Todo el que desee asistir a la comida de los socios del C.D. Aurrerá deberá comprar el ticket antes del 13 de agosto en los bares Txoko y Adur.
8. Todos los días, a las 3 de la mañana, habrá Ingurutxo para ver si ligamos un poco.

PLAZAOLA

MANUEL LASARTE ARRIBILLAGA 1927.eko abenduaren 16an jaio zen Leitzaan, Franki baserrian. Bertsoarako zaletasuna oso gazterik sortu zitzaion. Amak bertso zaharrak kantatzea izugarri gustokoa izaki, Manuel adi-adi egoten zen entzuten. Aitak tarteka ere kantatzen omen zuen baina oso bakanetan. Dena den, behin aitak kantatutako bertso zati bat gogoan hartu eta horrela poliki-poliki hasi zen bertsoak egiten eta osatzen eta bakarrik zegoenean aritzen zen kantari. Behin, etxe ondoko kantuan Martikoneko Juan Martin eta bere anaia Bittorio ezagutu zituen eta biak bertsoan hasi omen ziren. Horrela, Juan Martin Manuel tentatzen hasi eta huraxe izan zen norbaiti bertsoan erantzun zion lehendabiziko aldia.

Hamabiren bat urte zituela Aiara joan zen bizitzera eta handik Oriora. Gipuzkoaratu eta handik gutxira hasi zen plazaz plaza bertsoan Basarri eta Uztapiderekin. Garai hartako eta egungo bertsolari gehienekin herriz herri ibilia da kantari.

Nafarroa Garaiko bertso gintzaren lekuko paregabea dugu Manuel Lasarte. Klasikoa eta txukuna, hizkuntza garbia eta musikalitate aberatsen jabe, zortziko ttikian maisu. Adituek aho batez aitortzen dute hitzez hitz bertsoa neurtzen beste inork ez duen zehastasuna duela, egitura gramatikalak batere behartu gabe, gainera.

Bertso idatziekin liburua osatua du Manuelek «Gordean neuzkanak» titulupean. Hiru bertso-kaset ere kaleratuak ditu. 1994an beste liburu bat argitaratu zuen Lasartek «Lazkao-Txiki gogoan» izenekoa. Manuelek bere adiskideari egindako omenaldia, aitortpena eta agurra da. Biek eta beste zenbait bertsolarik herriz herri kantatutako bertso sorta bildu ditu bertan.

Oraingoan, M. Saralegiri egindako omenaldiaren egunean, bazkarikoan, han ziren bertsolariak Manueli kantatutako bertsoak papereratu ditugu. Azkeneko biak, berriz, Manuelek berak M. Saralegiri eta Perurenari botatakoak.

1. X. LIZASO

Garai batean aizkolariak
Leitzen hobenak pareko
pelotari ta harrijasotzen
zer ote degu hobeko
herriko markak, herrian hautsi
behar denetik konpleto
nahiko motibo badaukazute
Leitza haundi esateko (BIS).

2. EGAÑA

Leitza haundikin Lizasok zuen
adarra jotzeko plana
harrijasotzen eta aizkoran
baina hori ez da dana
bertsolari bat ere badegu
Leitzan benetan laztana
bertso batzutan gora dezagun
gure maisua izana (BIS).

3. TELLERIA

Bururatuta gure Andonik
Manuel aipatu danba
eta ez dakit jendeak zertan
zuen holako burruna
Andonik dio hor da Manuel
gure maisua izan da
oraindik ere kontuz ibili
honuntza etortzen bada (BIS).

4. X. LIZASO

arrazoi dezu etortzen bada
gu estu hartu gentzake
baina zergatik emango zaio
harri horrenbeste neke
ez ikaratu ez naiz hasiko
Manuel bertsoen eske
zu etortzeak balio baitu
gure bertsoak hainbeste (BIS).

5. EGAÑA

Frankin jaio ta gaztea zala
gero Aiaraino jua
eta Orion bizitzen jarri
sasoi hartu zun orduan
Euskadin libre hor ibili da
txori txikien moduan
baina sekula ez du ahaztu, ez
bere kabia nun duan (BIS).

6. TELLERIA

Eta Lasartek egin dun bera
egiten dute usoak
hark hegal eta beronek oinez
pasa herri eta auzoak
nunahi ibiliz hitzaldin eder
lanbide eta bertsoak
hainbat lekutan ibili arren
maite du herri osoak (BIS).

7. X. LIZASO

Etorri da ta erakutsi du
behar hainbat borondate
omenaldia eskeintzen zan da
Manuel nola aparte
Leitza ta biek hoiek lotura
betikoa dadukate
Lasartek Leitza maite du eta
Leitzak maite du Lasarte (BIS).

8. EGAÑA

Beti kabira itzultzen daki
nahiz gaztea zala alde
ta Leitzak ere bere bihotza
daduka Lasarten alde
orain gauza bat kontatu nahi det
intentzio txarrik gabe
lehen besteok zahartuaz goaz
ta zu berdin berdin zaude (BIS).

9. TELLERIA

Esan liteke Manuelentzat
Leitza dela zilbor-heste
juan dan lekuan herri honentzat
eman du nahikoa ospe
eta bertsoetik urrenduz daude
hiru neskatila gazte
guk tragotxoa egin artean
soinu jotzera zatozte (BIS).

10. LASARTE

Hemen bazkaltzen ari naizela
hau da pentsatzen duena
Leitzako herriak badula zerbait
beste inork ez duena
gizon haundiak haziak ditu
Saralegi, Perurena
biak batera zorientzea
izango det nik onena

Iñaki zahartzen dijoakigu
Mikeltxo dago gaztea
indarrez dira paregabeak
bata bezela bestea
geroko berri ez dakit baina
hauxen da nere ustea
kostako dela herri batean
holako bi ikustea

ROSA SESTORAIN



TRESNA ETA OHITURA ZAHARRAK

AZKEN urteotan antolatu ditugun ekintzei gainbegiratu bat ematean ohartu ginen arlo batean hutsune nabarmena genuela, gure arbasoek utzitako ondare kulturala erakustean, alegia; gaur egun, oraindik, baserri eta herriko etxe zaharretan jasoa edo baztertua dagoena.

Erronka erakargarria zen herri osoan bildutako tresna eta erreminten bidez aurreko bi-hiru belaunaldien bizimoduaren ikuspegi orokorra ematea, nahiz eta jakinaren gainean geunden horietako asko hondatuak edo gaizki salduak izan direla urteotan arrazoi ezberdinengatik eta ezin ezagutuko ditugula.

Erakusketa orokor honek iharduera guztiak kontutan hartzea eskatzen zuen, nekazaritzatik hasita industrigintzaraino, lanbide ezberdinak eta etxeako tresneria. Jakin bagenekin tresna horiek kontserbatu direla, baina ez non. Hauek Leitza osoan bilatzea eta tresnen jabeen laguntza lortzearekin batera sailkapen lana egitea (berdinak ziren asko ez elkartzeko) eta falta zirenak bilatzea..., urrats guzti horiek uztartzea izan da lanik korapilotsuena. Orain, euren laguntza eskaini duten etxe eta baserriak zenbat izan diren ikusten dugunean ohar gaitezke herriko bazter guztiak ageri direla eta zen-

bat jendek erakutsi duen laguntzeko borondate ona.

Guztira ia mila tresna dira duela belau-naldi batzuk bizi zirenen bizimodu eta lanbideen berri emateko ahalegin honetan bildu ditugunak. Hainbeste tresna izanik leku haundia behar zuten eta aproposena frontoia iruditu zitzaigun; leku itxia izatean tresna guztien kontserbazioa ziurtatu zitekeen, azkenean txiki samarra gertatu bada ere.


Erakusketak guztiok harritu gaitu piztu duen interesa dela eta. Bisitariek euren eritziak emateko jarri dugun koadernoak da honen lekuko. Besteak beste, aipa dezakegu behin baino gehiagotan azaltzen den desioa, erakusketa hau ez dadin izan testimonio gisako ekintza isolatu bat, baizik eta moduren batean jarraipena izango duen ekintza, bere eragina zabalduko duena.

Hausnarketa hauek, herritarrenak zein kanpotarrenak, guk pentsatu baino askoz hobeto erakusten dute erakusketak Leitza-rentzat izan duen garrantzia.

- Erakusketa oso ongi iduritu zait eta beharbada «museo» iraunkor baten oinarria izan beharko luke.

- Nere denboran ikusi doten gauze polittena ikusi dot. Aspaldin aierrak eotten





nitzen baserriko tresnak denak baten ikusteko. Urte askoan iraun dezala honek.

- Oso interesgarria izan da, harrigarriena da nola konserbatu edo gorde diren oraindaño honelako tresna batzuk. Luzaroan gorde ditzatela.

- Politaz aparte, nik uste dut garai bateko jendea nola bizi zen ikusi eta ikusteko eta kultura pixka bat areagotzeko oso ona dela.

- Liburu batetan bildu behar lirateke.

- Nola adierazi bi hitzetan? Hasteko, esan eskertua naukezuela horrelako aukera eskeintzeagatik, bai tresna zein denbora aldetik. Haurtzaroko oroitzapen asko etorri bait zaizkit.

Hala ere, tresnen erabilera zuzena ikusteko aukera somatu dut faltan. Beharbada ezinezkoa litzateke, hori baloratu izan duzuela pentsatzen dut. Dena den, zorionak eta eskerririk asko.

- Ez nuen espero hainbeste gauza zudenik baserrietan eta izugarri harritu naiz frontoia hain betea egoteaz. Gauza guztiak oso politak dira eta liluratuta geratu naiz. Meritua dute baserriarrek gauza hauek hain ongi konserbatu izanaz, batzuk urte asko dute eta.

- Hemen gu baino lehen egon zirenek beren eskuz harria, metala eta zura euren bizitzari nola lotu zizkieten erakusteko eta guri utzi zigutena ikusteko oso modu zirragarria.

- Zorionak erakusketa honen antolatzailerei. Ondotik datozenek gure arbasobizimodua ezagutu dezatela.

- «Filipatuk» gelditu ga. Ez giñun uste hainbesteko aldea zegoanik orduko tresnakeraguneroko bizia, eta oraingoaren artean.

Jendek (jende batzuk) oroigarri hauek gordetzeko meritua izandu do. Beste batzuk biltzekoa eta erakustekoa. Hauei denai eskerak.

Eta beste proposamen bat iñen nuke: liburu eta testu zaharren erakusketa.

- Oso polita iruditu zait, guk, gazteok, ezagutzen ez genituen gauzak ezagutzeko modua eduki dugulako. Horrelako beste erakusketa batzu egin beharko lirateke baina ez frontoian, pilotan ezin bait gara ibili.

- Zorionak Leitzako jendeari, bertako tresnak eta ohitura guztiak horrela jasotzeagatik eta hain txukun eta erakusgarri jartzeagatik.


Lan ederra. Eta asko ikasi dugu!

- Oso interesgarria dena. Komeni litzateke tresnen jabeek adieraztea hauen balio historikoa ez ditzaten nolana hal; eta egitekotan esku honetara doazelako garrantzia osoa eduki.

- Ez da batere errega, erakusketa honetako txoko batzuk ikusterakoan somatutuan zirrara adieraztea.

Zenbait tresna ezezagunak egin zaizkit eta urruneko haize goxo batek, garai-haie-tara hurbilduarazi nau.

PESTAK 95 - LEITZA



Nahiz eta zenbakiari arioren hainbeste denbora ez denik eman, egunetik egunera edo urtetik urtera egoerak, konturatu gabe gure bizimodua aldatu du. Oso polita da erakusketa behin eta berriro ikusiz, euskaldunaren bizimodu gogor eta aberatsaz jabetu eta harro sentitzea.

Guk edo nik behintzat tresna batzuen aurrean deskoneksio bat egon dela somatut nere bizimoduarekin konparatuz eta gaurko gizartearen funtzionamenduak eta egoerak hau dena estali edo baztertuta utzi du.

Roilo txar hau alde batera utzirik, LAN ABERATS, POLIT ETA AHAZTEZIN hau aurrera eraman duten «ALFER KUADRILA»-ri eskerrik beroena.

ZORIONAK DENEI eta TRESNAK UTZI DITUZUEN GUZTIEI noski, bestela nola sortu hau?

Erakusketa honek balioko balu tresnen jabeak eta ikustera etorri direnak konturatzeko baztertuta, ezkutuan eta ahaztuta dituzten «trasteak» ondare historikoa direla eta gorde eta zaintzeko erabakia hartuko balute, hasieran genituen helburuak gaindituko lirake. Kontserbatzearekin eta zerbaitetan, zergatik ez, errestaurazioarekin gure historiaren atal garrantzitsu bat bermatuko litzateke, denok bait dakigu guztion betebeharra dela «gurea» ondoko belaunaldiei transmititzea, «eurena» eraiki ahal izan dezaten.

ANTOLATZAILEAK



LEITZAKO TORREA

BEHIN baino gehiagotan entzun izan dugu Leitzan bazegoela nonbait Gaztelu bat, baino misterio kutsu batekin, zeren ez genekien non egon zen, nolakoa zen, zertarako erabiltzen zuten, zeinena zen... Auñamendiren "Enciclopedia General Ilustrada"n horrela irakur daiteke: "Leiza. Castillo: Poseyó un antiguo castillo cuyas ruinas eran bien visibles no hace todavía un siglo." Eta ondoren dato mordo bat ematen ditu izandako "alcaide" eta frontierako gerlatz. Egia esan, nik ez nuen inoiz holakorik entzun ezta non kokatu zitezken ere Gazteluaren hondakin horiek. Julio Altadill ospetsuak hala dio bere "Castillos Medioevales de Navarra"n: "No tuvo castillo, pero tal condición puede reconocerse a su casa consistorial por su extraordinaria solidez, un castillo para la paz, hoy algún tanto desfigurado y que en los días intranquilos del siglo XIV, fué el centro de resistencia de la comarca en defensa contra las invasiones de los gipuzkoanos. Fué considerada como un castillo realengo." Orain badakigu ziur Udaletxea 1745ean eraiki zela; imaginazioa ere askotan erabiltzen da. Badaude beste zenbait liburuetan ere Fortaleza, Casa eta Torre bezalako aipamenak, baino lehengo urtean argitaratutako liburu batean azaltzen dira Leitzako Gaztelu edo Torreri buruzko aipamen gehienak eta hori erabiliz Leitzako Torre edo Gazteluaren kontu hau pixka bat argitzen saiatuko naiz. Liburu hau "Castillos Reales de Navarra (siglos XIII al XVI)" da eta bere egilea Juan José Martinena Ruiz.

HISTORIA PIXKA BAT

Gazteluak Nafarroako Erresumaren defentsa sistema garrantzitsua osatzen zuten, gehien bat gatazka garaietan. XIVgn mendezkero dokumentazio asko jaso da honi buruz, gehien bat erreziboak, obrako gastuak, "alcaide"en soldatak, etab., eta dato hauetatik atera ditzakegu ondorio garrantzitsuak.

Nafarroako gaztelu gehienak ez dira izaten jauntxo batenak, bere bizi toki eta botere feudala zentralizatzen duena, baizik Erregearenak eta ia beti gudu gazteluak. IX. mendean azaltzen dira aurreneko torreak edo zeleta tokiak mairuen kontra egiteko; baino gazteluak oraindik ez eta inguru honetan gutxiago, Gipuzkoa Nafarroako Erresuman zegoen eta mugarik ez zegoelako.

1.200gn urte inguruan kastellanoak Araba eta Gipuzkoa hartzen dituzte eta orduan hasten dira egiten gaztelu mordoxka bere mugak defenditzeko. Gipuzkoako mugak Ausa, Ataun, Gorriti eta Leitzako gaztelu edo torreak defendatzen zituzten. XIII. mende honetan Erregeak 100 gaztelu inguru zituen, Santxo Azkarraren garaian egindakoak, baina dokumentuetan ez dira azaltzen mende honen bukaera arte. Gero XIV eta XV. mendetan konponketa asko egin zituzten guduak zirela alde batetik eta bestetik zahartu egiten zirelako, adituek diotenez 1328an gaztelu gehienak 100 urte baino gehiago baitituzte.

Leitzakoa "casa, casa fuerte edo fortaleza" bezala azaltzen da XIV. mendean zehar eta ondoren "torre" bezala. Hala ere 1345ean egindako obra batzuen kontutan "torr de leiza" izendatzen dute. Adituek "Torre" deitzen diote Leitzakoari eta aldiz "Castillo" Ausa, Ataun eta Gorritikoari.

Leitzeko Torreko lehenengo aipamena 1318ko dokumentu baten azaltzen da. Bertan armagizon bakoitzaren soldata "...es de 20 sueldos y 5 cahíces de trigo al año. Según esa pauta, la torre de Leiza, que por esos años contaba con 60 hombres para su defensa, tenía una retenencia de 60 libras y 300 cahíces." Juan López de Urroz zen "alcaide" a garai hortan.

Ondoren obrak eta beste kontuk direla askotan azaltzen da, gero ikusiko dugunez, baina 1347an ordurarte zegoena, zahartuta edo, utzi eta berri bat eraikitzen da.

TORRE BERRIE

la 1345an egindako obra batzuetan ikusten da egoera txarrean zegoala, negua nola hala pasatzeko "Se pusieron en la Torre de Leiza cuatro grandes cabrios al pie, <en manera que este ynierno no aya a caer, et al uerano y pueda la Seynoria proueer de lo que conuiene>." Urte hortan bertan ere, eta etxea behar bezala ez gordetzeagatik "destituzioak" izan ziren: "En 1345 le fué retirado el alcaldío de la casa torre de Leiza al escudero Pedro García de Yániz, <por razón que no guardaua la dicha casa segunt prometió>."

Beraz Torre berri bat eraikitzen da eta hau harrizkoa eta herrian bertan, orain artekoa egurrezkoa baitzen eta gainera herritik urruti, erreka ondoan, 1347ko dokumentu zahar batean esaten denez. Hiru orrialdeetan zehar kontatzen zaigu Torre non egin behar den, hortarako etxea zeineri erosi zitzaion, tamaine eta obra ingurúan izandako gorabehera dexente. Hona hemen zati batzuk:

*q[ue] fizo por f[azer] la casa de leiza de piedra et de mortero Reyna aya
do en ancho et treinta y cinco codos en alto y las paredes tres codos en
amplio q[ue] montan tanto como xxx codos en largo y xy en ancho y xxxv
codos en alto tornandolo quadrado dentro en la villa al cabo jussano de la
dicha villa la qual la seynora Reyna aya mandado f[azer] de piedra la qual ata
agora solia ser de fusta aleyssos de la dicha villa cabo el rio por g[ra]tissima f[echa]*

<Item por fazer la casa de Leyca de piedra et de mortero (...) en ancho et treinta y cinco codos en alto y las paredes tres codos en amplio que montan tanto como xxx codos en largo y xy en ancho y xxxv codos en alto tornandolo quadrado dentro en la villa al cabo jussano de la dicha villa la qual la Seynora Reyna aya mandado fazer de piedra la qual ata agora solia ser de fusta aleyssos de la dicha villa cabo el rio...>

Beraz herriaren ondoan egiten da eta bere tamañe, codo horren neurrie "codo real" harturik (574 mm.), beste bi "codo" bai baitaude, luzen 17,2 m., zabalera 8,6 m. eta alture 20 m. izango zen.

<Item a Ochoa Martinez de hurtuvia alcayt de la dicha fortaleza por la compra de la casa y huerto do la dicha Torr es empezada de piedra la qual compro de john ochoa dayzpilo y por mudar la dicha casa del dicho john dayzpilo en otro lugar>.

Hau da, Torre berrie egiteko etxea eta baratza erosi behar izan zioten beste norbaiti eta gainera beste etxe bat egin (garai honetan seguraski etxe gehienak egurrezkoak ziren).

Urte honetan beste xeblekeri bat ere gertatu zen. Obrak hasterakoan, bertakoak idi pare bat bere gurdiarekin jarri zituzten harriak ekartzeko, urrengo 20 urteetan Gipuzkoako aldeko mendietatik egurra ateratze truke. Baina Ochoa Mtz. de Blastegui izeneko "eskudero" gipuzkoanoak idiak lapurtu zizkieten eta beste pare bat erosi behar izan ziren "al señor de la ferreria mediana".

Item por razon q el otro par de buyes q dieron los de Leycca robo ochoa Mtz. de Blastey escudero de ypuscoa por tanto el dicho recibidor compro otro par de buyes de po diaz seynor de la ferreria mediana de Leycca por mas de ochoa durtuuia alcayt de la dita casa de Leycca. C. r. y. f.

"Item por razon que el otro par de bueyes que dieron los de Leycca robo ochoa Mtz. de Blastey escudero de ypuscoa por tanto el dicho recibidor compro otro par de bueyes de po diaz seynor de la ferreria mediana de Leycca por man de ochoa durtuuia alcayt de la dicha casa de Leycca>.

Urrengo. 30urteetan aipamen asko dago, gehienak egindako obragatik, eta torreak zeukan garrantzia adierazten dute. Adibidez 1358an paretak gehiago goratu zituzten: "En la torre o fortaleza de Leiza, se alzó de obra de piedra, en 1358, por encima de la fábrica existente, un añadido de 3 codos y medio de grosor". Hau da, lehen 20 metrotakoa baldin bazen, orain 22 metrotako altura izango zuen. Alajaina!

1378an Gaztelakin izandako gerraren ondorioz osotara txikitzen dute: <fue cayda et derribada>.

Hemendik aurrera eternaldi dexentea ezagutzen du, beste 80 urte pasa arte ez dago kio "Alcayde"rik eta. 1406ean oraindik suntsitua zegoen eta 1410ean Errenteriko argin bati eskatzen diote konpontzeko presupostua (Juan de Renteria). 1429 arte ez da obrarik egiten eta urte honetan konponketak egin eta berriz soldaduak bidaltzen dituzte. Torre inguruko fosa edo zuloa inguruko gizonak egiten dute jana eta edari truke: <... en dar a comer et beber a los de las comarquas, que benieron a facer el fosado de la dicha torr grant numero de gentes>. Edari hau ardoa izaten zen eta mendialdean eta Behenafarroan batzuetan sagardoa edo "pomada". Peonei ematen zitzaien ardoa nolakoa behar zuen izan Fueroak esaten du:"<...el vino denlis tal que sea bien temprado, solament que aya color de vino, et non sea tornado ni del todo agrio>. Si se les daba pan de trigo, de un robo debían hacerse 16 panes. También se les daba aceite y una cebolla, carne por gracia, no por obligación, y sopas de queso. Fuero General, lib. III, tít. V, cap. XVI". Hau orain dela 600 urte.

Ondoren 1444ean berriz Gaztelakin gerra; Areso eta Leitza osotara suntsituak izan ziren. Garai honetan gaztelu asko abandonatzen dira, gerra sistemak aldatzen dira artilleriakin eta bertan ere giroa txartzten joan da gerra banderizoak direla eta.

Hala ere Leitzako torrea berreraikitzen da 1460 inguruan eta 1461ean du izendatua bere azken alcaidea, Martin de Eraso. Gorritiko gazteluak ere 1464ean dauka azken alcaidea, Ochoa de Leiza. Hemendik aurrera erreferentziak galdu egiten dira. Orokorrean gaztelu batzu abandonatu egiten dira eta bertakoak hango harri eta egurrak bere lanetarako erabiltzen dituzte, pleito dezente sortuz. Beste batzuk herriei, elizari edo jauntxoei saldu edo ematen zizkieten, batipat beren taldekoak baldin baziren. Azkenik, zutik iraun zutenak, Nafarroako konkista ondoren bota egin zituzten, 1512an erregeak aginduta, 1516ean Cisneros kardinalak (honek gaztelu, torre, muralla eta monastegiren bat ere bota erazi zituen matxinadarik izan ez zedin) eta 1521ean Carlos V.k aginduta geratzen zirenak. Honen ondorioz gazteluei buruz dokumentazio dexente geratu da baino aztarnarik ez, hau da ez dakigu non kokatuak egon ziren edo nolako estruktura zuten.

EGITURA ETA IHARDUERA

Badakigu hasieran egurrezkoa bazen ere gero harrizkoa egin zutela eta beti "de Rea-lengo" izan zela, erregearena eta honek izendatutako "alcaide" a zen bertako arduraduna. Ikusiko dugu pixko bat zer eginkizun betetzen zituzten eta egindako obrak zer nolako egitura erakusten duten Torrean.

Alcaidea funtzionario militar bat zen eta erregeak gaztelu baten kontu jartzen zuen denbora jakin batez. Gehienetan hidalgo eta zaldunak dira eta gutxitan azaltzen da "palciano" edo "señor solariego" izana. 1372an Nartarteko Jauregiko Jauna Leitzako Torreko "alcaide" izendatu zuten. Beren obligazioen artean, bertan bizi; armaz, janariaz eta jendez ornitua eduki; hil arte defendatu; behar ziren konponketak egin... Eta gaizki bete ezkeror laister eskatzen zaizkio kontuk. Ikusi dugu Leitzako alcaidea nola bota zuten 1345ean. Ausa edo Auza gaztelukoak ere gorriak ikusi zituen: "Cuando en 1335 don Pedro Ladron de Guevara perdió el castillo de Ausa frente a los guipuzkokanos, todos sus bienes, incluido el palacio de Yaben, fueron tomados a mano real en castigo de su negligencia en la defensa".

Gerra garaian defentsa zen bere eginkizun nagusia frontierako torrea baitzen hemengo eta garrantzitsua dirudenez. 1334ean, "el alcaide de la torre de Leiza debía sostener 70 hombres armados, aunque sólo consiguió armar 45". 1335ean gipuzkoarren eraso baten ondoren, Juan Garcia de Reta Merinoa pertsonalki etorri zen frontalero mordoxka batekin ingurua defendatzeko. 1350ean Leitzako torrean 15 frontalero zeuden Ochoa de Urtubia alcaidearen agindupean. Beren armak lantzak eta baleztak ziren, eta bake garaian polizi lanak ere egiten zituzten, espetxe bezela ere erabiliz: "Los calabozos, generalmente subterráneos, eran húmedos, oscuros y fríos, y los presos estaban casi siempre encadenados, sujetos con grilletas o metidos en cepos". Hala ere ez zuten denbora asko irauten espetxean, eta lehenbailen zegokien zigorra ematen zieten "... azotes o desorejamiento (belarria moztu, bai) o bien, en casos de mayor gravedad, ejecutando la pena capital: horca o despeñamiento desde lo alto de la torre". Ez dakigu hemen horrelakorik eman zen...

Alkaideak bere lanegatik kobratu egiten du, diruan eta garian, eta beti gazteluen garrantziaren arabera. Leitzakoa 1355ean gehiena hartzen dutenen artean azaltzen da: 8 libra eta 4 cahiz.

Egitura-Nolakoa. - Badakigu 1347 arte egurrezkoa zela eta ondoren harrizkoa, laukie eta oso altue. Goazen beste zehaztasun batzu ikustera.


Hesia. Hasteko torrearen inguruan lurrean sartutako egurrezko eztakaz egindako lehen hesia izaten zuten. "Palenque" edo "empalizada" deitzen zioten eta jendea eta aziendak ez inguratzeke eta gerra garaian aurreneko oztopo bezala erabiltzen zuten. "En la torre de Leiza se trabajaba en 1333 <in reficiendo de nouo de lignis clausuram dicte fortalezie uocata palenc, que erat putrefactam>". Hamaika urte beranduago haritz egurrez berritzen dute <la meatat del palenc, qui era caydo, en l'otra meatat que iua a cayer>. 1347an berriro bertako nekazariak goratzen dute, erregeak ordainez obie eta urdaie emanez.

Putzua, edo zuloa egiten zuten hesiaren barrutik, "cava, taillada edo fosado" deitzen zutena. Leitzan 1347an "la cambra sobre el portal de la cava" konpondu zuten. 1363an berriz "acudieron 240 hombres de la tierra de Larraun a Leiza <ad abrir et limpiar la taillada de la dicha fortaleza>, cobrando a 10 dineros cada uno". Azkenik 1429an Leitzako torre edo etxeko "fosado" a inguruko gizonak egin zuten, jana eta edari truke.


Zubie. Putzua pasatzeko behar zen eta ate bakarrean egoten zen, trinkoa edo goratzen zena. Hau goratzeko pertike edo palanka batetaz baliatzen ziren kontrapesoz goratzen zena eta kate batzuekin zubia ere goratzen zuten. Leitzeko <la puent leuadiz> konpondu zuten 1333an, <cum cathena sua férrea>. Ondoren berritu zuten haritzez 1344ean eta 1347an berriro ere aldatu egiten dute <porque la otra puent non ualia ren ni era leuantadiça>.

Arkerak. Propio egindako tokiak, kanpoaldera aterak (andamio moduan) arku eta balaztak erabiltzeko. 1344ean lau eraiki ziren Leitzako torrearen lau ixkinetan.

JUAN JOSE MARTINEZ RUIZ



Disposición de las arquerías y andamios.
(Según la Encyclopédie Médiévale,
de Viollet le Duc).



Obra guzi hauek egiteko bertako jendeak ere laguntzen zuen, behartuk baitzeuden, eta trukean "almut" e bat garikin egiten zen obie ematen zieten (ir a pan de almut). Bartzuetan, obra garrantzitsuetan, "conducho" (urdaie, gazta...) eta edarie gehitzen zitzairen. Bestetan berriz dirutan ordaintzen zieten. Gai honek pleito dezente ekartzen zuen. Leitzan 1333an obra garestiak egin ondoren gobernadorea etorria zen kontuak ikustera ia hemengo jendeak gehiago jarri behar ote zuen edo. 1347an berriz, aurretik tasatutakoa

(200 l.) baino askoz gehiago kostatu zen obra bat ikustera etorriak ziren Iruñetik informe bat egin eta ordainketa baimentzeko: "... el maestro había hecho el cálculo por bajo <como aqueil qui, magüer fues buen maestro, de sus manos nunca fezo tal hobra>, admitiendo el propio recibidor que <nin por mucha maor quantia se podria facer tal labor>". Orain bezelatsu...


Badira oraindik obra, ordainketa eta holakoren aipamen gehiago, baino orain arte ikusitakoekin nahikoa dugu gutxienez ideia bat egiteko nolakoa izan zitekeen Leitzako Torre hura eta bere inguruan nolatsuko bizia izaten zuen.

Ez ditugu janariak aipatu, baino kontu eta faktura asko dago gazteluek egiten zuten gastuekin. Obie gaztelu edo torre bakoitzak egiten zuen; ardoa soldaduentzat "artículo de primera necesidad" bezala zegoen hartue eta bestela gehien azaltzen direnak hauek dira: urdaie, olio, babak, gazta, mijo, gatz, haragie (ardie, azurie, behie...) eta arraie: "25 merluzas secas a un sueldo cada una y cuatro congrios que importan 17 sueldos"; "dos cargas de merluz salado, una de arenques y otra de sardinas". Hau garizuma garaien erabiltzen zen gehienbat. Gaztelu batera denbora gutxirako bidaltzen zutenean talderen bat, obie, gazta eta ardo hutsekin bidaltzen zituzten. Gainera gizon bakoitzak jan zezakeena "ordenanza real" batek esaten zuen, adibidez: "... un robo de trigo mensual y un carnero por cada veinte hombres, un garapito de vino por cada ocho y cuartal y medio de cebada por rocín".

ONDOREN ZER?

1461ean ikusi dugu Torreri buruzko aipamena. Ondoren ez da gehiago izan Leitzan erregearen gaztelu edo etxerik soldaduekin eta gerrarako prest. Zer gertatu zen etxearekin? Non zegoen?

Duela gutxi Leitzako Udaletxean dokumentu bat aurkitu dugu Torretaz hitzegiten duena. 1650ekoa da: "Traslado del auto de la Corte por el que se ordena que Juan de Eraso entregue o haga traslado de un privilegio de 1471 por el que se declaraba exenta la casa Dorrea de Leiza".



"Martin de Iriarte y Catalina de Sagastiberria su mujer vecinos de la Villa de Leiza dicen que ellos son dueños y ascendientes de la casa de Dorrea de la misma villa y el señor Rey Don Joan en la ciudad de Tafalla siendo aquella villa el año pasado de 1471 hizo merced de ciertas essemptiones y pribailegios a Martin (?) Lopez de Eraso como dueño de la dicha casa y castillo que al tiempo era y despues han vendido los otros suplicantes como sus ascendientes y la dicha (...) se alla orijinalmente essento en un pergamino en poder de Juan de Herasso vecino del lugar de Huarte (...)"

Hau da, 1471an Martin Lopez de Eraso Torreko nagusia da (1461an alcaidea zena beharbada?) eta 1650ean nagusiak M. Iriarte eta C. Sagastiberria dira.

1726ko "apeo"an azaltzen da hurrena Torrea izena, dirudienez etxe, edo nagusi, ospetsua gainera:

"95. Bernardo de Bordaberri—— Torre, propiedad de Lorenzo Oronoz procurador del Tril. ecco. de Pamplona."

"... dixeron que en la casa propia de Lorenzo de Oronoz esrbno. Real que reside en la ciudad de Pamplona con empleo de pror. de la Curia ecca. de este Obispado estan en un cuarto cerrado de dicha cassa Cui a llave tiene el dicho Oronoz los rexistros orixinales de Juan de Iriarte, Martin de Leiza, Juan de Leiza, Juan de Soroa, Domingo de Areso y Oressa y Martin de Gorriti escribanos Reales ia difuntos ..."

Azkenik, lehengo mendeko kontuk. 1834eko abuztuaren 23an Torrea erre egin zuten. Nagusia José Ramon Cestau zen, karlista ospetsua, eta etxean paper asko eta garrantzitsuak gordetzen zituen. Elizako kontuk ere berak eramaten zituen eta denak erre ziren sutean. Horrela dio Leitzen "Escribano Real"ak egindakok informean: "... que en 23 de agosto de dicho año de treinta y cuatro, se presentó en esta Villa el General Rodil con su columna, el que procedió inmediatamente al saqueo e incendio de la casa del recordado Cestau, en el cual fueron reducidos a cenizas todos los (oficios, apeos,...) que contenía, y entre ellos el libro de cuentas de...". Gizona preso eraman zuten Iruñera, eta urriaren 12an idazten du gartzelatik Elizako kontuak nola utzi zituen esanez. Badira berriro Torreko garbaran azaldutako dokumentu batzuk Zumalakarregik eta Erregeak sinatuk bi Cestau-tar teniente izendatuz gerran izandako adoreagatik.

